

## **COVID-19 ARAUAK, ETXAURI 2020 IGERILEKUAK**

Igerilekuen denboraldia hasi baino lehen, Denak Bat-eko Batzordeak jakinarazi zuen aurtengoa "berezia" izango zela, Covid-19rekin bizi beharko baikenuen, eta horrek Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak ezarritako osasun-arau jakin batzuk betetzea zekarren.

Kartel ugari jarri dira instalazioetan, Udalaren web orrian eta igerilekuetako langileek informazioa eman dute, eta arauak betetzeaz arduratzeko direnek etengabe eman dute horren berri, baina arau horiek egunero urratzen ari direla ere jakinarazi digute: maskarak ez erabiltzea, sarbide-txartela ez erabiltzea, mahaia behar baino pertsona gehiagok okupatzea...

Egoera horretan, eta kontuan hartuta, gainera, herrian koronabirus-brote bat dagoela, eta osasun-langileekin hitz egin ondoren, Denak Bat-eko Batzordeak jardutea erabaki du, eta, beraz, pertsona jakin batzuei jakinarazpenak bidali zaizkie, arauak ez betetzeagatik.

2020ko uztailaren 30ean Denak Bat-eko Batzordeak egindako bileran honako hau onartu zen: edozein araua ez betetzeagatik edo Batzorde honetako pertsona batekiko edo langile batekiko errespetu faltagatik pertsona bati abisua ematen bazaio, falta hori gutunaren bidez jakinariziko zaio eta berriz egiten badu, bi eguneko (larunbata eta igandea) instalazioetatik kanporatuta izanen da. Errespetu falta egonez gero, kanporatzea aste betekoa izanen da.

Egoera kontrolatu ezin bada, pertsona gutxi batzuek ez dituztelako arauak betetzen, Denak Bat Batzarrak instalazioak itxi beharko ditu, eta horrek langileei eta arauak betetzen dituzten pertsonen kalte egingo die.

Osasuna, hainbat pertsonaren soldata eta gure instalazioez gozatzea ari gara jokoan; beraz, pertsona bakoitzak bere erantzukizuna hartu behar du, eta arauak errespetatu behar ditugu.

Etxaurin, 2020eko abuztuaren 4an